

Arrasate

P R E S S

2000.eko
urriaren 20a
513. zenb.

Inoiz ez da berandu,
nahi izanez gero

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • EUREN IKUSPUNTUTIK: AMAIA LARRAÑAGA
ESKOLA KIROLA: HASI DA DENBORALDIA • KULTURA: ION POUSA MARGOLARIA

ITURRIOTZ

A R R A S A T E

Etxebizitza-multzoa

*Azken
etxebizitzak eta
lokalak!!*



Eragilea:

**ZERRAJERA
ETXEBIZITZAK, S.L**

Informazioa eta salmenta:

Iturriotz kalea, 35
ARRASATE
Tel.: 943 77 19 67 • 943 77 19 68

Udalak eta udaletxeak

Azken urtebetean, Goiena dela eta, Debagoieneko udaletxe guztiak bisitatzea tokatu zait. Sarriago edo gutxiagotan, den-denetan egon naiz, eta guztietan eginkizun bera betetzera joan naiz: lehen-dabizi Goiena aurkeztera, eta gero eskualdeko udalen eta Goienaren arteko lankidetzaren hitzarmena proposatzera. Eta beraien artean oso hurbilekoak diren arren, bakoitza berezia da, bai udala eta bai udaletxea; hau da, bai pertsonak eta bai eraikinak.

Esan dezadan Goiena bera ere ez dela berdina herri guztietan. Kasu batzuetan, herriko elkartek hartu du udalarekiko harremanen ardura eta beste batzuetan neuk egin dut lan hori zuzenean. Hemen esango ditudanak, neuk ikusitakoak dira.

Udal batzuetan,



Mikel Irizar

alkatearekin bakarrik hitz egin dut Goienaz eta berak eraman du gaia behar zen tokira. Aretxabaletako Angelek eta Eskoriatzako Edortak izan dute jokamolde hau. Antzuolako Mireia, alkate den emakume bakarra, solaskide zuzena izan dut, baina une erabakigarrietan Gorri jeltzailea ondoan izan du. Aramaion izan naizenetan, Iñaki

alkatea eta zinegotzi ugari bildu dira, beti ere Aitor Leturiondo idazkariaren ganorari esker. Oñatin eta Bergaran, lehen harremana batzordeekin izan da,

Bergaran Euskarakoa, eta Oñatin Kulturakoa. Geroztik, Victorianorekin egon izan naiz, baina ez zait egokitu Oñatiko alkatea ezagutzetik. Arrasate, Elgeta eta Gatzagakoko kasuetan, tarteko egoerak izan dira: alkatearekin egon, bai eta batzorde edo zinegotzie-

kin ere bai.

Oro har, alkatea udaleko gerentea ere badenean, harremana errazagoa da, bizkorrago lotzen da, eta hurbiltzeko aukera hobea ematen du bide formalak baino. Gero, bakoitzak jakingo du ea etxe barrurako ere jokamolde hau onena den edo ez. Ni kanpotik ikusitakoak ari naiz.

Udaletxeetan, eraikinetan ere, bada alderik. Eleganteena Bergarakoa da, eta ezin zen bestela izan. Betidanik Arrasateko andreak Bergarako Pazkoetan hartu izan dute Sanjoanetarako modeloa! Ikusgarriena, Aretxabaletakoa. Alkatearen bulegoan dauden margolanak harrigarriak dira. Antzuolakoan hotz egiten du. Oñatikoa, ederra baino, aldrebesa egin zitzaidan. Proporzioan duinena, Gatzagakoa. Asko gustatzen zait herriko etxearen funtzioa nola betetzen duen, posta eta osasun zerbitzuak ere bertan baititu. Arrasatekoa duina da, baina oso bete iruditzen zait, jendez gainezka dagoela ematen du. Hori bai, guztiak ere eraikin bereziak dira eta, oro har, txukun eraberrituak.

Eleganteena Bergarakoa da. Arrasatekoa duina da, baina oso bete iruditzen zait, jendez gainezka dagoela ematen du.

“Feminismoa eta sexologia eurak izate barik geratu dira, euren historia alboratu egin da, eta zeharka irakatsi dira”.

Maitena Zubia eta Ana Oiartzun

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Oñalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera eta Leire Kortabarría. **Publikatzailea:** Nerea Zallo Arantza Lagunilla, Arantza Arroja. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemakaldea:** Lorea Aguilano. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Saila. **Banaketaren arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 71 12 26).
©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko kontzentratua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanena eta inbiziaren erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.
Azala: Leire Kortabarría.

492.150

metro koadro hartuko ditu Garaia proiektuak Uribarri auzoan.

Uribarri baserri auzoa eraldatu egingo da guztiz. Izan ere, hortxe, Mondragon Unibertsitateak eta MCCk elkarrekin garatuko dute proiektuak aurreikusten dituen eraikinak; hau da, teknologia eta ikerketa zentroak eraikiko dira.

AURKIBIDEA

- Ikuspegia **3**
- **Udalak eta udaletxeak**
- Irakurlea idazle **4**
- Inkesta **5**
- Euren ikuspuntutik **6**
- **Elkarrizketatzera eseri, orain!**
- Begi kolpez **7**
- Asteko hitzorduak **8/9**
- Astearen errepassoa **10**
- Orain eta hemen **11/12**
- Txutxumutxuak **14/15**
- Asteko gaia **16/17**
- **Adin mugarik gabe, alfabetotik unibertsitatera**
- Aurrez aurre **18/19**
- **Sebastian Uribetxeberria**
- Eskola kirola **20**
- Kirolak jokoan **21/22**
- Kulturaren txokoa **23/25**
- Ikusi eta entzun **26/27**
- Azoka plaza **28/29**
- Foto zaharra **30**

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igoalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramia 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziazak 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 71 17 31

20 URTE

Datorren azaroaren 7an Pedro Guridi Arozenak 20 urte beteko ditu espetxe espainiarretan. Pedrotxo atxilotu zuten garaian, euskal gizartearen zati handi batek estatu espainiarrean egin zen erreforma politikoak huts egin zuela baieztatzen zuen.

Halaber, euskal buruzagi batzuek sortu berria zen Estatuaren bidea hartzea erabaki zuten, nahiz eta hasiera-hasieratik Ezker Abertzaletik bide horrek zituen mugak salatu. Pedrok, beste hainbat eta hainbat gaztek bezala, borroka armatuaren erabilera beharrezkotzat jo zuen, beste borroka mota guztiekin batera, inposatutako egoera honi irtenbidea emateko. Honen ondorioz, bortizki zigortua izan da.

Gaur, 20 urte geroago, konstituzio espainiarrak eta Estatutuak finkatutako mugak gaintzeko nahia duen euskal gizarte batean bizi gara. Honen aurrean estatu espainiar inposatzailea dugu: komunikabideen erabilera lotsagarriarekin gezurra egi bihurtu eta euskal gizarte kriminalizatu egiten du, hau guztia, berriro ere, EAJ eta EA euskal alderdi nazio-

nalista moderatuen noraezarekin lagunduta.

Bien bitartean, euskal gazteria Espainiako kuarterel zein auzitegietan zigortzen jarraitzen dute. Legeak aldatzen dituzte euskal nortasuna defendatzen duten militanteak etengabe zigortzeko. Desberdin pentsatzearen arrazoi hutsagatik, politiko zein bakezaleak kartzelaratzen dituzte. Euskalduna izatea eta honela sentitzea nahikoa arrazoi da errepresioa jasateko. Gaur egun, duela 20 urte bezala, batzuk isildu eta noraezean dauden bitartean, gazte askok borroka armatua hautatzen dute, Euskal Herria askatu eta bakean zein justizian erakitzeke borroka mota beharrezko bezala.

SENIDEAK elkarteak, errepresio hau ezagutu eta bizi duen heinean, gizarte guztiak entzuteko bezalako garrasi sakon bezain garratza aireratzten du. Ez ditugu preso, errefuxiatu eta deportatu gehiago behar. Jasaten dugun oinazea jadanik nahikoa da. Ildo hone-tatik, egoera honi bukaera emateko konpromisoa eskatzen dugu; alderdi abertzale, sindikatu, agente sozial eta, oro har, gizarte guztiaren konpromisoa.

Pedrotxo jasaten ari den 20 urteetako sufrimenduak ondorioak ikasteko balio behar digu. Guztion zeregina da gure iraganetik ikasi eta gizarte hau ilusionatu eta benetako burujabetasunean zein bakean eraikitzea.

Senideak

Eguneroko keinua

Zenbatetan esan digute erosi aurretik prezioari eta kalitateari begiratzeko? Egunero hamaika bider esaten digute erosten dugunean guri gehien zer kome-ni zaigun bakarrik hartu behar dugula kontuan: prezioa, kolorea, zaporea...

Baina, jakin badakigu erosten dugun gauza oro norbaitek ekoiztu duela. Norbait aritu da mendian kafea erein eta jasotzen edota gure umearentzako larruzko balioa josten.

Langileek duintasunez egindako produktu bat eta langileak esplotatuz egin den beste baten artean aukeratu dezakeen ezin pentsa dezake berak kontu horrekin zerikusirik ez duenik.

Produktu bat erosten dugun bakoitzean produktua egin duenari irabazi bat ematen diogu eta beraz aurrera jarraitzeko gure laguntza. Nori eman nahi diogu gure laguntza, herriko bizimodua hobetzeko nekazal elkarte batetan batu diren Chiapaseko nekazari-erri edota mendietako nekazariak iruzurtuz bizi diren bitartekari esplotatzaile eta Londresko burtsan kafearen prezioarekin espekulatzen duten multinazionalen?

Gureak izango dira erabakia eta erantzukizuna.

Harreman Bidezko
Merkataritza Denda

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 20

- Azkoaga, Iturriotz

Larunbata, 21

- Korkuera, Musakola

Igandea, 22

- Irizar, Erguin

Astelehena, 23

- Amezua, Santa Marina

Asteartea, 24

- Zabala, Zarugalde

Asteazkena, 25

- Ruiz, Maalako Errabala

Osteguna, 26

- Morales, San Andres

Zuzenketa:

Joan den asteke Arrasate Pressen Cerrajerako hormak botatzen zebiltzala jaso genuen. Baina, akats bat zegoen berri horretan; izan ere, "aprendizen eskola" bota zutela esan genizuen, baina hain zuzen ere, horixe da oraindik zutik dirauena, hortxe baitago Arrasate Musikal. Bota zutena, garai hartan biltegi bezala erabili zen eraikina izan zen.

Zenbat aldiz igo zara Udalatxera?

Urriaren 12an ospatu zuten Udalatx eguna



Rosalía Tamayo
(64 urte)
Erretiratua

> Ez naiz inoiz igo. Ni Bilbon bizi naiz eta alabak bisitatzera etortzen naiz, baina nire alabei entzun diet igo direla inoiz.



Balentin Moreno
(43 urte)
Langilea

Askotan, batez ere jai egunetan. Udalatx egunera aspaldian ez naiz joan; gainera, haurrentzat arriskutsua da, harri asko dago.



Teofilo Jimenez
(62 urte)
Erretiratua

Ehun bat aldiz bai, baina orain urtean behin edo birritan. Maiatzaren lehenean koa-drillako lagunak igotzen gara.



Ekaitz Elorriaga
(19 urte)
Ikaslea

Gasteizkoa naiz, baina txikitan inoiz igo izan naiz gurasoekin. Agian, berriz igo behar ko nintzateke, lagunekin edo.



Begoña Galdaera
(37 urte)
Langilea

Orain dela asko, birritan edo igo nintzen, baina oso gazte ezkondu nintzen...



Arrate Izquierdo
(10 urte)
Ikaslea

Ez naiz inoiz igo, baina nire gurasoak bai. Udalatx egunean ere ez naiz egon.



Amaia Garro
(9 urte)
Ikaslea

Bat bera ere ez. Agian etxeoak egon dira inoiz; ni neuk ikusiko dut joaten naizen.



Aitor Arostegi
(17 urte)
Ikaslea

Ez naiz inoiz igo, Udalatx egunean ere ez. Oso goian dago.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
LUZAPENAK

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

SOLARIUMA

Ferrerías, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TLF. 943 711762

USTEAK USTE

Seattle txikia

Edo Baiona Txikia? Zubian, Baionan egin den bilera erraldoi hori zela eta, globalizazioaren aurkako salaketa erraldoi bat izan zitekeenak euskal gatazkaren beste adibide bat izaten amaitu du. Chirac-ek Baiona aukeratu zuen Europako gailur hori egiteko, jakinda mugak euskal herritar asko erakarriko zituela, Euskal Herrian bizi den egoera salatzeke Europako kideen aurrean eta, horrela, globalizazioaren aurkako salaketa ia jarraitzailerik barik geratuko zela. Gonbidatzailea izanik, Chirac-i ez zitzaion komeni globalizazioaren aurka Seattle-n gertatu zena Frantzian gertatzea, eta estatu buruak, Parisen elkartu beharrean, Baionan hitzartu zituen. Eta guk, noski, amua irentsi dugu. Eta euskaldunok han gertatutakoaren errudunak gara, Europako agintarien begien aurrean eta Europako komunikabideen aurrean.

Aitziber Uribetxeberriak horren guztia-
ren kontura hiru hilabete igaro beharko ditu Baionako espetxean, poliziaren aurka harriak jaurtikitzeagatik.

Marijo Deogracias



Elkarrizketatzera eseri, orain!

* Amaia Larrañaga

Hamalau urte bete berri ditu Eusko Alkartasunak, eta urte horietan guztietan aldaketa asko ikusi ditugu Arrasaten eta Euskal Herrian.

Hala ere, Arrasaten egin dako eta egitekoa garrantzitsua izanik, ez da hau momentu egokiena pilotaleku, autobus edo kiroldegiaren berrikuntzari buruz hitz egiteko, momentu honetan Arrasate eta Euskal Herria gehien kezkatzen dutena **BAKE BEHARRA** baita.

Hamalau urte hauetan Eusko Alkartasunaren leloa beti izan da elkarrizketaren beharra, eta gaur egun sekula baino beharrezkoagoa dela deritzogu. Azken urteetako egoera larrienean bizi gara eta egunerarte, lasaitasun une bakarrak elkarrizketak eman dizkigu, Lizarragarazi Akordioak, alegia. Horregatik jarri dugu abian "elkarrizketatzera eseri, orain!" kanpaina.

Behin Lizarra gaindituta, batzuek eskaintzen digutena bortxakeria eta txi-

kizioa da; besteek, aldiz, poliziaren jarduera eta tinkotasuna ("firmeza" ospetsu hori). Hau izan da azkenengo 30 urteetako formula (urte eta erdi izan ezik) eta gaur egun bizi dugun egoera. Beraz, samur asma dezakegu hurrengo 30 urteetako bizimodua nolakoa izan daitekeen.

Bakebidean maiz ahazten duguna normalkuntza beharra da, gizarte normalkuntza. Bakeak normalkuntza behar du eta horretarako formula bakar bat dago, denen artean marko juridiko-politiko bat ezartzea eta denok errespetatzea, euskal herritarren gehiengoak bakarrik muga

dezakeen marko bat.

Elkarrizketa horretan errespetatu beharra hau izango litzateke:

- Guk nahi dugun etorkizuna libreki erabaki ahal izateko dugun eskubidea, herritar guztien Giza Eskubideekiko errespeturik zorrotzean oinarrituz.

- Gure etorkizunean nola-ko Euskal Herria nahi dugun erabakitzeke euskal herritar gisa dugun eskubidea.


- Azken hitza herriarena izan behar da eta denon alde-
tik hori errespetatzeko konpromisoa egon behar da.

Beraz, Euko Alkartasunak ez du etsiko gatazka hau elkarrizketaren bidez konpondu arte, Euskal Herriak ezin dituelako beste 30 urte egoera berean jasan, ez eta 30 hilabete ere.

Jakin dezatela batzuek eta besteok bakea ez dela inposatzen, bakea elkarrizketa bidez egiten da.

* Arrasateko

Eusko Alkartasuna



TTUKUN
Fotokopiak
Liburu jostekak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

 **Txitxinpe**
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

 **ILE APAINDEGIA**
Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

jaiotzak

- Ainhoa Zeziaga Larrea, irailaren 22an.
- Iker Perez Iriarte, urriaren 8an.
- Maider Alonso Guiñon, urriaren 11n.
- Eduardo Arroyo Rivero, urriaren 14an.
- Dennis Fuentes Moto, urriaren 14an.
- Iñaki eta Miren Lizarraga Aranzabal, urriaren 14an.

ezkontzak

- Rafael Lizarralde eta Itziar Maidagan, urriaren 12an.
- Imanol Garcia eta Beatriz Bellanco, urriaren 13an.
- Angel M^a Pavero eta M^a Jesus Martin, urriaren 14an.
- Angel Encinas eta Mercedes Tena, urriaren 14an.
- Javier Iglesias eta M^a Rosario del Palacio, urriaren 14an.

mezak

San Joan parrokia

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

09:00 (gaztelaniaz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

09:00 (euskaraz)

10:00 (gaztelaniaz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (gaztelaniaz)

19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

11:30 (euskaraz)

12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

10:00 (elebiduna)

11:00 (euskaraz)

12:00 (gaztelaniaz)

13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

10:30 (gaztelaniaz)

11:30 San Isidron (euskaraz)

12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jaiegun bezpera eta larunbata

19:00 (gaztelaniaz)

Igandea

12:00 (gaztelaniaz)

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua



OSTIRALA 20

Lainoak areagotuko dira orduak aurrera joan ahala eta tenperaturak behera egingo du pixka bat.



LARUNBATA 21

Lainoak nagusi izango dira eta, ondorioz, euri arriskua izango dugu. Temperatura hotza izango da.



IGANDEA 22

Laino gutxiago izango ditugu eta tenperaturak gora egingo du hego haizearen eraginez.

eskelak

Eskelak, esker onak eta urteurrenak jartzeko tartea

Azken eguna: asteazken eguerdira arte

Tel.: 943 71 23 91



ESKER ONA




2000.eko urriaren 4an hil zen

Jesus Martinez Abarrategi

Bere familiaren partetik, eskerrik beroenak momentu hauek pasatzen lagundu diguzuen guztioi.

Urkuluko uraren maila

%66,3



Ilargia



Ilbehera

Ostiralean, urriaren 20an, ilbehera izango dugu.

Siki Siki

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82



MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Ganbrinus
tabernak

ZERBITZARIA
behar du

Tel.: 667 60 27 69
Esperientzia baloratuko da

20

ostirala

■ ZINEMA

El Portero: 19:30 - 22:00.
13 urtetik aurrerakoendako.

■ MUSIKA ETA POESIA
EMANALDIA

Kultur Errotaren eskutik, musika, poesia eta diapositibak uztartzen dituen saioa eskainiko du *Uztail Oparu Ostean* taldeak, *Harkaitz Cano* buru duela. Amaia antzokian, 22:30ean.

21

larunbata

■ ZINEMA

American Psycho: 17:00 - 19:30 - 22:00. 18 urtetik aurrerakoendako.

■ KALE AGERRALDIA
BILBON

Eusko Jaurlaritzak deitutako kale agerraldira joateko autobusa antolatu du Eusko Alkartasunak. 15:00etan irten-go da Garibaitik. Izen ematea doan da, eta Alkartetxean edo 943 79 64 53 telefonora deituta egin daiteke.

■ TXATXI-OLINPIADAK

Txatxilipurdik "Txatxi-olimpiadak" antolatu ditu herriko plazan, 17:30ean (euria eginez gero, Uarkapen).

■ JONATHAN RICHMAN

Kontzertua eskainiko dute Bergarako Jamen *Jonathan Richman*ek eta *Niños Mutantes* taldeek. Sarrerak 1.500 pezetan salduko dira, 22:00ean.

22

igandea

■ ZINEMA

American Psycho: 17:00 - 19:30 - 22:00. 18 urtetik aurrerakoendako.

■ MICHAEL MONROE

Michael Monroeren eta *Obligaciones*-en emanaldia izango da Bergarako Jamen. Aldez aurretik txartelak salgai 1.700 pezetan, bestela 2.000 pezetan. 22:00.

24

asteartea

■ ZINEMA

American Psycho: 19:00 - 21:30. 18 urtetik aurrerakoendako.

25

asteazkena

■ HITZALDIA

Armagintza eta Euskal Herria hitzaldia emango du KIK, udaletxean, 19:00etan.

■ IRUDIPUINAK

Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzeko, *Irudipuinak* ipuin eta marrazketa saioa izango da Santamainako Liburutegian, 6, 7 eta 8 urtekoendako, 18:00etan.

23

astelehena

■ ZINEMA

American Psycho: 19:00 - 21:30. 18 urtetik aurrerakoendako.

X Ezkontzak

X Bataioak

X Jaunartzeak

X Enpresa bazkariak
eta lagunartekoak



P A R K I N A E T A T E R R A Z A

BASTER-ALDE

J A T E T X E A


Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tel.: 943 79 24 58

LAN ESKAINTZA

Zahar berri egitasmorako
eragilea behar da

- Egun erdirako lan kontratua eskaintzen da.
- Hautaketa prozesuan parte hartu gura izanez gero, bidali kurrikuluma AEDra (Pablo Uranga, 4 Arrasate) urriak 27a baino lehen.
- Informazio gehiagorako deitu 943 71 21 17 telefonora edo etorri Pablo Uranga 6an ditugun lokaletara.



26 osteguna

■ IRUDIPUINAK

Irudipuina ipuin kontakizun eta marrazketa saioa izango da 6, 7 eta 8 urteko umeendako, Monterronen, 18:00etan.

■ GAZTE TXOKOETAZ BILERAK

Bilerak antolatu ditu Txatxilipurdik, Gazte Txokoen inguruan informazioa emateko. Arratsaldeko 7etan izango dira, ondoko egun eta lekuetan, aukeran: urriaren 25ean, San Andresko Gazte Txokoan; 26an, Musakolakoan; eta 27an, Uribarrikoan.

■ NAFARROA OINEZ

Autobusa antolatu du AEDk, domekan Nafarroa Oinezera joateko. Garibaitik irtingo da 9:00etan. Txartelak 1.200 pezetan daude salgai AEDn.

■ ARGAZKI LEHIAKETA ARAMAION

I. Argazki Rallya antolatu du Aramaioko Udalak urriaren 22rako. Aramaioko Udaletxean edo egunean bertan, Sastiñan, egin daiteke izen ematea. 50.000 pezetako lehen saria emango da.

■ NORTASUN AGIRIAK

Astlehenean hasiko dira nortasun agiriak egin edo berritzeko zenbakiak ematen, azaro eta abendurako. Udaltzaingoa, 8:00etatik aurrera.

■ BERTSO BAZKARIA

Bermeon egingo den NAn egunean bertso bazkaria ere antolatu dute eta AEDn daude salgai txartelak.

■ GALDUTAKO ARGAZKI ZAHARRAK

Antzinako bi argazki agertu dira Udaltzaingoa: bata, jaunartze batena; bestean, emakume bat agertzen da hurrez inguratua. Udaltzaingoa galdetu.

■ HITZALDIAK ABAROAN

Osasunaren inguruko hitzaldi sorta bat emango da Abaroako erretiratuen etxean, urriaren 23tik 27ra, egunero, 17:30ean.

■ PERRETXIKOAK

X. Perretxiko Lehiaketa antolatu du Arrasate Ikastolak zapatu honetarako, Laubide plazan. 11:00etan izango da erakusketa eta 14:00etan sari banaketa.

Zirkoa Arrasaten



Ikuskizunak eskainiko ditu datozen egunotan Arrue-nako zelaian Holiday zirkoak. Egubakoitzean: 18:15; zapatuan: 17:00 - 19:15 eta domekan: 12:00 - 17:00 - 19:15.

Baserriko produktuen azoka

Larunbatean, urriaren 21ean, baserriko produktuen azoka egingo dute herriko plazan. Arrasateko Udalak eta Emakume Baserritarren Elkarteak antolatu dute azoka hori eta goizeko 09:00etatik 14:00etara izango da.



2001.eko udazken neguko denboraldia

Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12



Udalatx
InmobiliariA

- Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
- Tasazioak
- Aholkularitza Fiskala
- Errentamenduak
- Kontratuak

Etxebizitza berriak salgai

- Arrasaten Ferrerias kalean.
- Aretxabaleta erdialdean.

Maalako Errebala, 27 behea ▪ Tel.: 943 79 59 99

astea bi hitzetan

■ Epaimahaia erabakita

Pasa den irailaren 26an, datozen bi urteotan epaimahai moduan ibiliko diren gipuzkoarrak zozkatu ziren. Tartean, noski, arrasatearrak ere bazeuden. Dagoeneko bidali da herrira, atera diren herri-tarren zerrenda. Erabakienez, guztira 30 mondragotarrek jardun beharko dute epaimahai lanak betetzen. Hauek etxean jasoko dute abisua, bestela, udal-terteko iragarki-taulan begira daiteke, hantxe egongo baita zerrenda hilaren bukaera arte. Alegazioak aurkezteko epea: azaroaren lehenengo bi asteak.

■ Kale bilkurak

Asteartean bilkurak izan ziren Mondragoen, Sevillan izandako azken atentatua gaitzesteko. Eguerdian Herriko Plazan elkartu ziren hainbat zinegotzi eta herri-tar, Juan Jose Ibarretxe lehen-

dakariak egindako deialdiarekin bat eginez. Arratsaldean, berriz, Bakearen Aldeko Koordinakundeak deituta, kale bilkura egin zen.

■ Ekinek bost urte

Ekin Emakumeak taldeak bosgarren urteurrena ospatu zuen pasa den astean. AEDren baitatik sortuta, emakumeekin lanean diharduen euskara elkarte bakkarenetarikoa da Mondragoen.

Hemendik ere, zorionik beroenak Ekin Emakumeak elkarteari eta lanean segitzeko gure animorik beroena.

■ Informatika euskalduntzen

AED eta Arrasateko Udala, Arrasaten informatika euskalduntzeko asmotan dabil-tza. Horretarako, ordenadore erabiltzaileen artean euskarazko sistema eragileak

eta ofimatika programak eskuratu eta erabiltzeko ohi-tura bultzatu nahi dute. Horretarako, abian jarri dute "Arrasaten informatika euskalduntzeko akordioa". Horrez gain, diru laguntzak ere izango dria Arrasateko informatika dendetan euskarazko programak erosten dituztenendako.

■ Merkataritzako jardunaldiak

Ibai-Arte dendarien elkarte-ak antolatuta, merkataritza jardunaldiak izan ziren pasa den astean Mondragoen. Bezeroak nola zaindu, arazoak daudenean hauei erantzun egokia nola eman edo jasotzen diren kezuak bideratzeko jakiteko aholkuak landu zituzten.

Arrasateko Lantegi Eskolan izan ziren eskolak. Partaidetza oso eskasa izan zen: 90 bazkide-tatik bakkari-rik 15ek hartu zuten parte.


■ Erregai pilak

Arrasateko Ikerlan ikerkuntza zentroa argindarra sortzeko bide berriak aztertzen dabil. Hiru urteren buruan erregai pilak egin nahi dituzte. Pilekin eraikin, etxebizitza eta autoendako balioko duen argindarra sortu nahi dute. Miñaoko parke teknologikoan dabil-tza lan hori egiten. Proiektuak 515 milioi pezetako aurrekontuarekin EEBBetako hainbat unibersitaterekin elkarlanean egingo da.



Galeuskaren egitekorik garrantzitsuen, etorkizunean, itzulpen politika bideratzea da: euskaraz egiten diren lanak katalanera eta galizierara itzultzea, baina baita beste hizkuntza batzuetara zabaltzea ere. Horretarako Galeuska izan daiteke motorra, hau da, bilduleku bat, abiapuntu bat, azken finean”.

**JUAN MARTIN
ELEXPURU
GOITB
(2000.10.18)**



**MARKO-JARTZEAK
ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Arrasatearra kartzelara

Asteburuan zehar Baionan izandako istiluen ondorioz, beste euskaldun batzuen artean, Aitziber Uribetxeberria mondragoetarra eta Asier Berdazi bergararra atxilotu zituzten pasa den ostiralean.

Asteazken honetan izan dute epaiketa 28 urteko bi gazteek eta Marie Therese Ville epaileak bi gazteak kartzeleratu ditu. Aitziber Uribetxeberria mondragoetarra hiru hilabetez egon beharko da Baionako kartzelan eta hiru urtez Frantziako lurraldean sartu barik.

Asier Berdazi bergararak, berriz, hilabete eman beharko du kartzelan eta urtebete Frantzian sartu barik.

Ez zaie bermea ordaintzeko aukerarik eman. Beraz, derrigor bete beharko dute epaileak ezarritako zigorra. Asteazken arratsaldean bertan eraman zituzten gazte biak Baionako espetxera.



Euskaldunon Egunkaria

BORTIZKERIA

Harriekin armatuta egotea eta CRSko polizien kontrako bortizkeria da epaileak leporatu diena. Aitziber Uribetxeberriaren senitartekoez jakinarazi digutenez, mondragoetarrak onartu egin zuen harria eskuan hartu izana, "nazioarteko komunikabideak Euskal Herrian bizi den gatazkaz ohartarazteko bide gisa". Asier Berdazik, berriz, leporatutakoa ukatu zuen. Horrexegatik ezarri dio epai-

mahaiak zigor txikiagoa.

ISTILUAK

Bi atxiloketa hauek salatze-ko kale agerraldiak izan dira astean zehar Bergaran eta Arrasaten. Domekako agerraldian, Mondragoen, istiluak izan ziren Ertzaintzak manifestarien aurka egin eta gero. Asteartean, berriz, tentsio oneak izan ziren Ertzaintzak bideoz banan-banan grabatu zituenean manifestariak, baina ez zen istilurik egon.

San Frantzisko itxita

Pasa den asteartetik aurrera San Frantzisko kalea itxita egongo da trafikoarentzat azaroaren 6a arte. Haresiz kanpoko lanen barruan, kale horren lurraren zoladura konpontzen hasi dira eta horrexegatik itxi behar izan da.

Olarte kalean garajea dutenak, beraz, Arbolapetatik sartu ahal izango dira hemendik aurrera. Zamalanak egiteko, berriz, Garibaitik zabalduko da bidea erdiguneraino.


Urrian zehar Zurgin kantoitik Gazteluondorainoko kale argiak ipiniko dira. Arbolapetatik komenturainokoak azaroaren bukaera inguruan hasiko dira ipintzen.

Ingurumena

Arrasatearrak ingurumenarekiko duten jarrera zein den jakitea nahi du udalak. Horretarako, inkesta bat egitea erabaki du. Gutxienez hiru hilabetez luzatuko da. Bestek beste, jakin nahi da zein den mondragoetarren portaera birziklatzeko orduan, uraren eta elektrizitatearen kontsumoan eta antzeko ekintzetan.

Era berean, jakin nahi da ea jendeak ezagutzen dituen ingurumenarekin lotuta dauden arazoak, zein iritzi duen udalaren egitekoaz eta zeintzuk diren dauden beharrak. Inkesta egiteko 1.276.000 pezeta inbertituko dira.

Susto ederra



Martitzen arratsaldean Obenerreka kaleko bizilagunek susto ederra hartu zuten. Gernika Zumardiaren zubia ipintzen ari zirela, 20 metro luze eta 560 kilo dituen hormigoizko habe bat errepidera erori zen.

Zorionez ez zuen inor azpian harrapatu. Habeak errepidea albotik albora moztu zuen eta, ondorioz, trafikoa moztuta egon zen ordu batzuz.



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta billegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Garaia Uribarrira eta baserritarrak haserre

MCCk eta Mondragon Unibertsitateak gauzatu nahi duten Garaia izeneko egitasmoa, Uribarri auzoan kokatzea erabaki da. Ikerketa ugari egin behar izan dira auzo hori aukeratu aurretik, beharrezko baldintza denak betetzen dituen lekua lortu ahal izateko. Tartean, Eskola Politeknikotik, Ikerlanetik eta MCCtik ahalik eta gertuen egotea eta 50 hektareako lur saila lortzeko aukera izatea; eta azkenean, kokagune egokiena Uribarri dela ikusi da. Garaia egitasmoak, besteak beste, Berrikuntza Gune bat egitea aurrerik ikusita dauka. Eta Berrikuntza Gune horixe da Uribarri auzoan kokatuko dena.

50 HEKTAREA

Garaia proiektuaren garrantzia jakinda, egitasmo horrek behar duen lur eremua gordetzea erabaki du Arrasateko Udalak,



la Uribarri auzo guztia hartuko du Garaia proiektuak.

gerora MCCri eskaintzeko.

Horrela, bada, Uribarri auzoko 492.150 metro koadro gordeko ditu, (19 bat lur sail) 8 urte baino lehen edo desjabetu beharrekoak. Horrek esan nahi du Garagartzara bidean dagoen Gau-Txori taberna inguruetatik hasi eta Eguzkitza baserrirainoko lur sail denak erabiliko direla, han

gune teknologiko bat egiteko. Horrekin, Markuleteko industrialdearekin eta Fagorren handitzearekin, esan daiteke, beraz, Uribarri auzoa desagertu egingo dela baserri-auzo moduan.

HASERRE

Eta noski, Uribarriko baserritarrak ez daude pozik horre-

kin. Garaia proiektua herriarendako eta inguruarendako onuragarria dela argi ikusten dute, baina horrekin batera, argi ikusten dute Kooperatiba Korporazioa eta Mondragon Unibertsitatearen proiektu horren ondorioz euren lurrak galdu behar dituztela, eta horrek "min handia egiten die".

Era berean, honakoa argi dute: "behin erabakita Garaia proiektua egin egingo dela, ez dute uste aurre egiteko aukera handiegirik dutenik. Asko jota hitzarmen egoki bat lortzea da euren helburua".

Era berean, zenbait baserritarrek salatu dutenez, ez dute udaletxetik informazio zuzenik jaso, komunikabideen bidez jakin izan dute lur sailak saldu beharko dituztela eta uste dute hori ez dela "guzak egiteko modu egokia".

San Prudentzio-Epele urte bukaerarako

Diputazioak onartu du San Prudentzio eta Epele arteko bide zatian egin beharreko lanen proiektua. Horrek esan nahi du, beharrezko adjudikazioak egin eta gero, urte bukaera aldean ez bada, urte hasieran ekingo zaiela konponketa lanek.

BIRIBILA

Besteak beste, San Prudentzioko bidegurutzean 58 metroko diametroko biribil bat egitea erabaki da. Orain dagoen zubia aprobetxatuz, hortxe bertan egingo da biribila, erreka gainean. Horrekin batera, zubi berri bat ere egingo da, San Prudentzian. Hormigoizkoa izango da eta 15 metro zabal izango da.

Bestalde, Deba ibaiaren



Errepidea orohar zabaldu egingo da.

ibilbidean ere konponketa lan batzuk egin beharko dira. Besteak beste, ubide berri bat egingo da.

Horrez gain, errepidearen galtzada zabaldu egingo da, errepidearen alde bakoitzean 2 metroko bazterbidea

sortzeko.

Lanok egin bitartean, zirkulazioa ez eteteko behin-behineko desbideraketak egingo dira.

Lanok 6 hilabeteko iraupena eta 494 milioiko aurrekontua izango dute.

Papera eta kartoia batzeko

Debagoieneko Mankomunitateak Gobernu Batzordearen bilera egin zuen asteazkenean, Arrasaten.

Adierazi zenez, eta dena uste bezala badoa, mankomunitateak zerbitzu berri bat sortuko du, bailarako merkatariek botatzen dituzten kartoi eta papera jasotzeko.

Besteak beste, Akeiko erraustegia ere hizpide izan zen asteazkeneko bileran. Izan ere, enpresa bakarrak aurkeztu du Akeiko erraustegiaren zati bat botatzeko proposamena, Construcciones Zubirik, eta bestelako trabarik ez badago, mankomunitateak enpresa honi emango dio lan hori.

IKASGELATIK AGERTOKIRA

"Emakumea eta literatura"

- Hilero liburu baten kritika egingo da modu arin eta ulergarrian. Hitzaldi ostean elkarrizketa izango da.
- Zuzendaria: Itziar Zubizarreta
- Aurkezpen saioa: urriaren 25ean, asteazkena, arratsaldeko 18:00etan. Monerroneko hitzaldi aretoan.

Anima zaituz!

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA Emakume Saila ■

Laguntzailea:



hamaika
MAGAZIN

Ez galdu aukera!!



Ostegunero, GOITBn, gaueko 21:30ean, Hamaika Magazin saioan, azaroaren 23ra arte. Parte hartzeko, deitu 943 71 23 93 telefonora.

Astero, doako errebelatu bat zozkatuko da eta azaroaren 23an Reflex argazki kamera ederra zurea izan daiteke!!

Momentu berezienak behin eta berriz bizitzeko

har ezazu parte IKATZ lehiaketan!



www.ikatz.es




ZORIONAK,
BIKOTE!



Irailaren 21ean urrezko ezteiak egin zituzten Pedro Zabala Madinak eta Kasilda Vitoria Vitoriak, eta 24an ospatu zuten. Musakolako San

Isidron egin zuten elizkizuna, eta Garagartzako Ugارانen bazkalduta zuten ondoren. Zorionak biei, familiaren partetik!

UDALATX EGUNA



Zerua garbi, baina haizea fin zebilen, eta ondo jantzitā igō ziren mendira egue-nean Udalatx zaleak. Hildako mendizaleen omenezko mezan, bereziki Felix Iñurategi gogoratu zuten.



GURE MAISTRAREN OMENEZ

Urte askoan izan zen Isabel Iturbe Santa Agedako ikastetxeko maistra, eta bere omenezko bazkaria egiten dute urtero, gaur 70 urte dituzten orduko ikasleek. Ezkerretik eskuinera: Miren Bidaburu, Mikaela Larrinaga, Ines Jauregi, Espe Ugarte, Maria Barrutia, Primi Leibar, Maria Iria, Consuelo Argarate, Rosario Sanpedro, Carmen Leibar, Isabel Iturbe, Soledad Abarrategi, Teresa Pagaldai, Kontxita Uribarren eta Isabel Ozaeta.

IKASGELATIK AGERTOKIRA



Musikari gazte-
txoen topale-
ku bihurtu zen
joan den martitze-
nean Arrasateko pla-
za. ETBkoak etorri
ziren Betizu umeen-
tzako programa gra-
batzera, eta musika
izar iaioena lez ibili
ziren herriko hain-
bat ume.

IZENAK

Itxaro Zubillaga

Ez dugu Goienas-
porten gehiago
izango, baina
kirol kontuak
jorratzen jarrai-
tuko du Itxaro
Zubillaga kazetari
atxalbarrak, oraingoan ETBko
Sorginen Laratza saioan. Aste-
lehenero, gure futbol taldeen berri
emango digu Itxarok, Xabier
Azkargortarekin eskuz esku.



URTE ASKOTARAKO!



25. ezkontza urteurrena
ospatu zuten urriaren 11n
Marilyn Berasategik eta
Antton Elortzak. Iparralden
ezkondu ziren eta ezin hara
buelatatu; beraz, etxetik gertu
egin zuten ospakizuna: Oñatiko
Etxe-Aundi jatetxean.

Zorionak, senide guztien partetik!

IKUSPEGI ZORAGARRIA, BAI HORIXE!



Paisaia paregabe hau ikusteko
aukera izan zuten orain gutxi
San Josepeko bizilagunek.
Harrobian leherketa egin
zutenei eman behar zaie

eskerrak. Izarra dorretxetik
atera zuen argazki hau herritar
batek, ikuspegi eder haren
oroitzapena gorde nahian
nonbait.

GANBARA

- Enmarkazioak
- Estiloko markoak
- Laminak
- Arte lanak (margo lanak)

Arte
ederretako
materialean
%25-30eko
deskontua

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketen teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

Adin mugarik gabe, alfabe

Kontrakoa badirudi ere, umeen ikastetxe-
etan baino zalapartatsuagoak dira ikasturte
hasierak Arrasateko Helduen Ikastetxean,
EPAn. Han ez dago ume negarti edo zara-
tatsurik, baina bai, ordea, denboraz larri

bizi diren ikasleak, lana hezkuntzarekin
uztatu behar dutelako; edo Arrasate, Esko-
riatza eta Aretxabaleta artean bueltaka dabil-
tzen irakasleak, hiruretan edo bitan esko-
lak eman behar dituztelako.



Kultura Orokorreko hainbat ikasle, gejako mahailan ariketak egiten.

Egunero 150 lagun joa-
ten dira Arrasate,
Eskoriatza eta Aret-
xabaletako Helduen
Heziketa Ikastetxera;
horietatik 100, Arrasaten dabil-
tza. Guztiak dira 18 urtetik
gorakoak. Batzuk, gazteenak,
Derrigorrezko Bigarren Hez-

kuntzako graduatua ateratze-
ra joaten dira; nagusiagoek
kultura orokorreko eskolak
hartzen dituzte, eta badaude
alfabetatze ikastaroa egiten
dutenak ere; azken bi talde
hauetan, 50 bat urtetik aurre-
rakoak aurki ditzakegu. Hala
ere, badute ezaugarri komun

bat: ikasteko borondatea.

INTERES DESBERDINAK

Lehenago bete ezin izan zuten
hezkuntza bukatu eta Derrig-
orrezko Bigarren Hezkun-
tzako graduatua atera nahi
dute batzuek; gazteenak iza-
ten dira hauek, 18 urte baino
askoz gehiago izaten ez duten
ikasleak. Hauek osatzen dute
talde handiena: Arrasaten, 57
bat lagun dira. Graduatu horrek
lan aukera hobeak zabalduko
dizkien esperantza izaten dute
gogoan gazte gehienek.

Baina, lan hobe bilatzea
ez da motibazio bakarra; ikas-
le nagusien kasua da hau. Bi
mailatan banatzen dira hauek:
irakurtzen eta idazten ikasten
dabiltzanak, eta jakintzak zabal-
du nahi dituztenak. Hauek dira
ikasle izatearen bizipenak gogo-
gartsuenez hartzen dituztenak.
“Penaz hartzen dituzte opporak.

Jende helduarendako, oso ego-
kiak dira eskola hauek: ondo
pasatzeko eta buruko gaitasun-
ei eusteko balio dute”, diosku
Lourdes Jauregiatzok, Arra-
sateko Ikastetxeko irakasle eta
arduradunetako batek.

GIRO ONA

Kultura Orokorrekoek, orain-
goz, liburutegian ematen dituz-
te eskolak. Liburuak eta eka-
rri berri dituzten ordenadore-
ak orpoz orpo daude gela
horretan, informatikak gero eta
pisu handiagoa baitu EPAn
eskaintzan: “Iaz, ikasturtetik
bereiztutako tailer bezala eman
genuen informatika, baina aur-
ten, beste ikasgai bat gehiago
da, geografia, matematika edo
historia bezalaxe”, dio Lour-
desek.

Seiak jo dute, baina kos-
ta egiten zaie joatea, eta mahai-
ra eserita, koadernoan aurre-



Alfabetatze ikastaroko parte hartzaileak.

etotik unibertsitatera

an dihardute oraindik bi emakumek. Talde txikia da, eta lagun arteko giroa da nagusi, bai euren artean, bai eta irakaslearekin ere. Inor ez da behartuta etortzen, eta sumatzen da horren eragina.

Berdin gertatzen da alfabetatze saioretara joaten direnekin. Bost laguneko taldea dago ikasgelan, guztiak emakumeak; arbelean idatzitako esaldiak kopiatzen ari dira, finfin. Hezkuntza behin eta berriro erreformatu da, baina irakurtzen eta idazten ikasteko metodoak betidanik ezagutu ditugunak dira: irakurketa,

kopiaketa eta diktaketa.

ETXETIK IRTEN

Teknikak gutxi aldatu badira, are gutxiago aldatu dira EPAra hurbiltzen direnen irrikak eta jarrerak. Alfabetatze saioetara emakumeak baino ez dira joaten, eta berdin gertatzen zen Arrasateko zentroa sortu zenean, 1988an. Orduko ikasleak ditu gogoan Enrique Molinero donostiarrak, Arrasateko ikastetxearen "aita" batek: "50 urtetik gorako emakumeek osatzen zuten alfabetatzeko taldea; badirudi gizonen beldurra ematen


digula irakurtzen ez dakigula aitortzeak... Bizi guztia etxean eman izan zuten emakumeak ziren, eta bat-batean beste interes batzuk pizten zitzairen: irtetea, ikastea, seme-alabei ikasketekin laguntzea...".

Gogorak izan ziren hasierako urte haiek: "boligrafoak ere faltan genituen", dio Enrique Molinero; eta baita ikasleak ere, bizpahiru baino ez baitziren ausartu parte hartzera. Baina, guztia hazi da. Gaur egun, aipatu hiru irakasgaiez gain, euskara, ingeles eta informatikako ikasta-

ro solteak gehitu dizkio bere programari Arrasateko EPAk. Gainera, txango kulturalak eta eskulan tailerrak ere antolatzen dituzte urtean zehar. Orain, ikasleen eta ikasle ohien elkarte eratzten dabilza Arrasateko arduradunak, hemengo ikasleen gogoak ez baititu dagoeneko hemengo eskaintzak asetzen: unibertsitatean sartzeko ikastaroa eskatzen du gero eta jende gehiagok, eta aukera hori euren esku ipintzeko baliagarri izango da elkarte hori. ■


Leire Kortabarría

IKASLEAK



LUIS GODOY
(DBH)

Aurten hasi da ikasten, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ateratzeko, eta 18:00etatik 21:00etara jarduten du EPAn, goizez lanera joaten delako. Egun gutxi daramatza, baina gustura dabilela diosku, batez ere informatikan, bere ikasgai gogokoenean. "Nahiko errazak egiten zaizkit eskolak", dio Luisek.



FRANCISCO JIMENEZ
(Kultura Orokorra)

Bere lehenengo eskola egunean harrapatu genuen kultura orokorreko ikasturtean parte hartu nahian. "Jakín, gutxi nekien, eta nekiena ere ahazten hasia nintzelako erabaki nuen etortzea." Itxura ona hartu zion ikasturteari: lehenengo egunean, jendea ezagutu eta ordenadorean ibili zen. "Berandu nabil, baina borondatea behintzat ez zait falta", esan zigun.



OSANE MARTINEZ
(Kultura Orokorra)

Alarguna da, eta, bakarrik geratzean, zer edo zer egitea otu zitzaion Osaneri. Goizez lan egin eta arratsaldez ikastera joaten da orain bost urtetik. "Nekiena gogoratu eta gehiago ikasi nahi nuen, eta, bide batez, lagunak egin", diosku. Matematika eta Historia ditu ikasgai gogokoan.



TRINIDAD GARCIA
(Alfabetatzea)

"Zergatik etorri nintzen? Agiriak hatzamarrez sinatu behar izaten nituelako!", azaltzen digu Trinidadek. Bigarren ikasturtea du hau, eta oso pozik dabil. Asko saiatzen dela esaten digu: "Oso azkar irakur dezaket dagoeneko, eta ikasten jarraitzen dut"

SEBASTIAN URIBETXEBERRIA (SAN KLEMENTE PROIEKTUAREN

“Nekazari familiendako”

Sebastian Uribetxebarria aretxabaletarra da sortzez, Urkulukoa. 59 urte ditu, eta azken 28 urteak Kolonbian egin ditu. Lehenik, Girardo hiriburuan, Magdalena ibaiaren ertzean. Belloko ikastetxe batean aritu zen gero eskolak ematen, eta handik San Klementerantz abiatu zen, Kolonbiako erdi-mendebaldean dagoen nekazaritza giroko ingurunera. San Klemente proiektua jarri zen han abian duela hiru urte, eta proiektu horretan dihardu gaur egun, buru-belarri.

— Nola sortu zen San Klemente proiektuaren ideia?

— 80ko hamarkadaren bukaeran ikerketa bat egin genuen, Guatika inguruan nekazaritzak bizi zuen egoera aztertzeko. Ondorio bat atera genuen: jendearen arazo nagusia langabezia zen. Guk jardueraren bat jarri nahi

genuen abian, komunitatean arazo hori leuntzeko. Lehen-tasun batzuk markatu eta teknologia agroindustrialera biderratu genuen San Klemente institutua. Hori izan zen gure pentsamenduaren oinarria.

— Zein fasetan dago gaur egun San Klemente proiektua?

— Duela hiru urte hasi ginen proiektuarekin, eta gaur egun bukatzeaz gaude. Lehenengo fasean esnekien tailer-rra eraiki genuen. Bigarren-ean haragikiena, eta hirugarren-ean zerrien hiltegia eta ura biltzeko depositua. Honekin, azken kontuak atera eta txostena egingo dugu datorren urrian.

— Zeintzuk dira San Klemente proiektuarekin lortu nahi diren helburuak?

— Lehenik eta behin, datozen urteotan nekaza-

ritza arloan liderrak izango diren gazteak hezitzea, ongizate orokor bat sor dadin. Bigarrenik, berriz, gazteen artean eta nekazari helduen artean lana sortzea eta nekazal giroko nortasuna osatzea.

Horrekin, ongizatea bermatzea eta nekazarien familiak duintasunez bizi daitezela nahi dugu.


— Baina, beste arazo batzuei ere egin nahi diezue

aurre proiektuarekin.

— Bai. Bake planean kolaboratu nahi dugu eta herrialdeko segurtasun ezari aurre egin gazteak heziz. Izan ere,

Kolonbiako gizartearen badi-
ra fenomeno kontra-
jarri batzuk: nar-
kotrafikoa, balore
falta, biolen-
tzia... Gazteek
mendira joan eta
armak hartzeko
tentazioa eduki
dezakete. Proiek-
tu honekin arazo
batzuei irtenbi-
dea ematen

“Bake planean kolaboratu nahi dugu eta Kolonbiako segurtasun ezari aurre egin gazteak heziz”



N ARDURADUNA)

duintasuna nahi dugu”

badiegu, Kolonbiako bake giroaren alde arituko gara, eta San Klemente eta Guatikako nekazarien ongizatea bultzatuko dugu.

— Zeinek lagundu dizuete proiektua finantzatzen?

— Lehenengo, Misereor Alemaniako obispo katoliko-en elkarteak lagundu gintuen diruz, eta laguntza horri esker eraiki genuen bejetalen tailerra. Gero, ezin izan gintuzten gehiago lagundu, eta Jose Mari Sarasuaren bitartekaritza, Hiruatax elkarteak hainbat gestio egin zituen Gasteizko Uda-

larekin. Horien laguntzaz esnekien tailerra egin genuen. Harreman GKEk eta Eusko Jaurlaritzak ere lagundu gaitu.

— Etorkizunerako zein proiektu izango dituzue esku artean?

— Nik esperantzarekin begiratzen diot etorkizunari. Dagoeneko lan interesgarria egin dugu. Nekazari eta ikasleak ari dira jabetzen gizartearen garapenerako bidea dela lantzen ari garen hau.

Dena dela, nekazaritza jardueraren beste hainbat aspektu ezin ditugu ahaztu. Garapena

integrala izan dadila nahi dugu, eta produktuen ekoizpena hobetu behar dugu, bai kalitateari eta bai kantitateari dagokionez. Horrez gain, komertzializazioan ere buru-belarri sartu nahi dugu. Hazi transgenikoen aurka ere borrokatu nahi dugu, tokian tokiko haziei balio handiagoa emanez.

Urte batzuk barru, ekoizpena, agroindustria, klasifikazioa, komertzializazioa, ongariak eta giza hezkuntza eta buruzagitza uztartzen baditugu, bizi maila hobea izango dute Guatikako nekazariak.

— Zer eramango zenuke hemendik Guatikara?

— Erretiratutako jendea eramango nuke hara, enpresa arloan esperientzia handia dutenak eta kooperatibei buruzko ezagutzak interesgarriak erakutsiko lizkiguketenak.

Ezer baino gehiago, giza faktoreak egiten digu falta, ideiak gizarteratzeko eta bide berriak urratzeko. Kultura oso ezberdinak dira Kolonbiakoa eta hemengoak, eta horregatik ekarpen interesgarriak irten litezke kontraste horretatik. ■

3.000.000 ibilgailu baino gehiago aseguratuta, lasai-lasai errepidean

Problemarik gabe

Egin kontuak! 2.400 bulego, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konpanteta zune

MAPFRE Lehenengoak auto aseguruetan

Garibal Etorbidea, 16 • Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22 • Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 943 79 71 31 / 943 77 03 04



Hamar urte, hamaika kirol!

Badator berriz ere Arrasate Kirol Proiektua, AKP. Ikasturtea hasi da eta berarekin batera neska-mutiko guztien kirol ekintzak jarriko dira abian. Aurtengoa, urte berezia izango da AKPrendako; izan ere, 10 urte betetzen ditugure artean.

Hori dela eta, ekintza berezi batzuk prestatuko dira, "baina horiek, maila bakoitzean eman diren aldaketekin batera aurrerago eta urtean zehar, ikusten joango garen kontuak izango dira". Horixe esan digute AKPko arduradunek.

AKPko arduradunak taldeak egin eta ekintzak antolatzen ibili dira eta esan digutenez, "momentuz, izen ematea oso ondo doa. Izen ematea zertxobait igo da iazko garai honekin alderatuz gero".

Beraz, taldeak eginda eta bakoitzarendako begiralea aukeratu eta gero, kirol ekintzak hastea baino ez da geratzen eta hori asteburu honetan izango da. Larunbatean hasiko dira aurtengo ikasturteko asteburuetako kirol ekintzak.

Eta, beti bezala, adin bakoitzeko neska-mutiko talde bakoitzak ekintza bat izango du: aurrekiroleko ikasleak igerilekura joango dira; multikirolean dabiltzanek minisaskibaloia txapelketa hasiko dute. Infantil mailako ikasleak hasi dira dagoeneko entrenamendu saioetan eta aurki bailara mailako txapelketak jokatuko dituzte asteburuero.

Asteburu honetan hasiko dira AKPko kirol ekintzak



10 urte dira AKP eskola kirolaz arduratzen dela.

Asteburuko hitzorduak

Urriak 21, larunbata

1go jardunaldia

- ALEBINAK**
- ✎ **MINISASKIBALOIA**

NESKAK

- Jturripe
- 11:00** Erguin - SFX U
 - 12:00** SFX A - La Merced

MUTILAK

- Jturripe
- 10:00** Erguin - Aramaio
 - SFX U - San Viator
 - 11:00** La Merced - SFX A
 - 12:00** SFX B - Musakola

AURREKIROLA

- ✎ **IGERIKETA**

Musakola

- 10:00** SFX S T, SFX U, SFX A, San Viator B, Erguin
- 11:00** SFX D, La Merced A, SFX C, San Viator A
- 12:00** SFX B, SFX E, La Merced B, Aramaio, Musakola

Taldez talde

1go jardunaldia

- MULTIKIROLA**
- ✎ **MINIESKUBALOIKOIA**
- SAILKAPENAK**

NESKAK

| | Jokaera | Partaidetza | Puntuak | Guztira |
|--------------|---------|-------------|---------|---------|
| San Viator B | 3 | 3 | 3 | 9 |
| San Viator A | 3 | 2,5 | 1 | 6,5 |
| SFX A | 3 | 0,5 | 3 | 6,5 |
| La Merced | 3 | 1 | 1 | 5 |
| SFX U | — | — | — | — |


MUTILAK

| A taldea | Jokaera | Partaidetza | Puntuak | Guztira |
|-----------------|---------|-------------|---------|---------|
| 1. SFX U | 3 | 2 | 3 | 8 |
| 2. La Merced | 3 | 2,5 | 3 | 8,5 |
| 3. San Viator B | 3 | 2 | 1 | 6 |
| 4. Erguin | 3 | 0,5 | 1 | 4,5 |

| B taldea | Jokaera | Partaidetza | Puntuak | Guztira |
|-----------------|---------|-------------|---------|---------|
| 1. San Viator C | 3 | 2,5 | 3 | 8,5 |
| 2. Aramaio | 3 | 2,5 | 1 | 6,5 |
| SFX B | — | — | — | — |

| C taldea | Jokaera | Partaidetza | Puntuak | Guztira |
|-----------------|---------|-------------|---------|---------|
| 1. SFX C | 3 | 1,5 | 3 | 7,5 |
| 2. San Viator A | 3 | 2 | 1 | 6 |
| SFX A | — | — | — | — |

ESKUBALOIA Kanpoan behar- rean, etxean




Legazpiko instala-
zioetan jokatzetik
ez, eta Arrasate

Almenseskubaloi tal-
deak Iturripen jokatu zuen kan-
poan jokatu beharreko partida,
joan den ostegunean. Etxeko
kantxan aritzeak, dena dela, ez
zuen askorik lagundu Balerdi-
ren jokalariei; azkenean, 27 eta
21 galdutuz jokatu zuten. Hala
ere, aurreko partidetan baino
joku hobea erakutsi zuen Benar-
doren taldeak. Baina, aurkari
gogorra izan zuten, senior maila-
lako faboritoak.

Asteburu honetan ere etxe-
an jokatuko dute, oraingoan
Donostiako Loiolaren aurka.

SASKIBALOIA Bertan behera



Kenci Arrasate tal-
deko nagusiek
Iruñeko "Cons-
trucciones Erro

Eugi" taldearen aurka jokatu
behar zuten joan den astebu-
ruan, baina partida bertan behera
gelditu zen arrasatearrei
partidaren ordu aldaketa inork
adierazi ez zuelako. Dirudie-
nez, nafarrek 20:00etatik aurre-
ra jokatzeko dituzte neurketak,
baina joan den asteburuan bert-
tako federazioak 17:30etik
aurrera jokatzera behartu zituen
eta arrasatearrek ez ziren garaiz
iritsi. Hori dela eta, bulegoe-
tara zuzendu dute partidarekin
zer egingo den hartzeko era-
bakia. Kadete mailako nesken

partida ere bertan behera gel-
ditu zen. Asteburu honetan
Paules taldearen bisita izango
du talde nagusiak, Iturripen.

FUTBOLA Berdinketa etxean



Hiruna berdindu zuten Mon-
dra taldeak eta Ori-
oko, Atxabalpen.

Epailea berandu
iritsi zela eta, par-
tida ordu eta erdiko
atzerapenarekin hasi zen; gero,
minutu bateko isilunea gorde
zen Maria Etxezarreta zenaren
oroimenez. Maria, Aitor Las-
kurain jokalararen amona zen.

Partidari dagokionez, Mon-
drak izan zuten markagailuan

aurreratzeko aukera hasieratik,
baina ez zituen aukerak apro-
betxatu eta Oriokok aurre har-
tu zion etxeko hamaikakoari.
Horrela, bada, lehenengo zatia
1 eta 2 amaitu zen. Ekainek,
lehenengo zati horretan, epai-
leak adierazitako penalti sus-
magarri bat sartu zuen. Bina-
ko berdinketa bigarren zatia-
ren hasieran etorri zen eta hiru-
nako, berriz, kórner baten
ondoren. Partidaren amaiera
aldera, beste penalti bat ere egin
zioten Mondrari, baina epai-
leak ez zuen ikusi. Azkenean,
bada, berdinketarekin amaitu
zen neurketa eta asteburu hone-
tan Urolaren aurka jokatu-
ko dute Mondrakoeak. Urretxun
saiatu beharko dira etxean lor-
tu ez zituzten puntuak poltsi-
koratzen.

Emaitzak

FUTBOLA

- **Lehen erregionala:**
Mondra 3 - Orioko 3
- **Lehen mailako gazteak:**
Aretxabaleta 1 - Mondra 10
- **Bigarren urteko gazteak:**
Arrasate 2 - Urki 8
- **Ohorezko kadeteak:**
Eibar 1 - Arrasate 0
- **Bigarren mailako kadete-
ak:** Aretxabaleta Almen 1 -
Arrasate 2
- **Ohorezko infantilak:**
Mondra 12 - Elgoibar 1
- **Lehen erregionaleko
neskak:**
Elgoibar 4 - Arrasate 0

ESKUBALOIA

- **Seniorrak:** Arrasate Almen
21 - Legazpi 27

SASKIBALOIA

- **23 urte azpikoak:**
Eibar 64 -
Kenci Arrasate 54
- **Juniorrak:** ETH Irun 48 -
Kenci Arrasate 56
- **Kadeteak:** Ordizia 19 -
Kenci Arrasate 100

Jokatzekoak

FUTBOLA

- **Lehen mailako gazteak:**
Mondra - Urola, igandean,
16:30ean.
- **Lehen erregionaleko
neskak:** Arrasate -
Antzuola, igandean,
11:30ean.

ESKUBALOIA

- **Gazteak:** Arrasate -
Almen, igandean,
11:30ean.

SASKIBALOIA

- **Seniorrak:** Kenci Arrasate
- Paules, larunbatean,
18:00etan
- **23 urte azpikoak:** Kenci
Arrasate - Santo Tomas
Lizeoa Gaztelu,
larunbatean, 16:00etan,
Musakolan.
- **Kadeteak, mutilak:** Kenci
Arrasate - Easo Kafes
Aitona, larunbatean,
12:15ean, Musakolan.
- **Kadeteak, neskek:** Kenci
Arrasate - Indulita
Niessen, larunbatean,
10:15ean, Musakolan.

Kirol ekintzak, kirola egiteko beste aukera bat

Jadanik hasi dira AUKEAK
antolatzen dituen kirol ekin-
tzak, baina izena eman ez
dutenek ere, oraindik badu-
te aukerarik; izan ere, hain-
bat ikastarotan lekua dago.
Horietako bat da manteni-
menduzko gimnasia, baina
Musakolako kiroldegian
izaten dena. Orduetara zaba-
la da astelehen, asteazken
eta ostegunetan; prezioa,
berriz, bazkideentzako
2.250 pezeta, bi egun, eta
3.025, hiru egun. Aerobi-
cean ere oraindik eman dai-
teke izena. Iluntzeko
20:30eko saioan lekua dago,
bai eta 9:30etik 18:30era eta
19:30etik aurrera egiten
diren saioetan. Bazkideen-
tzako prezioa, bi egunen-
gatik, 2.250 pezetakoa da eta
3 egunen gatik, berriz, 3.400
pezeta.

Azkenik, gogoratu ige-
riketan ere lekua dagoela
oraindik. Helduentzat zein

haurrentzat eskaintzen da
kirol ekintza hau eta honek
ere ordutegi zabala dauka;
gainera igeriketa egokitua
ere badago eta horretan ere
eman daiteke izena. Intere-
satuok Musakolako kirol-
degira jotzea baino ez duzue.

IGERIKETA MONITOREAK


Debagoieneko Kirol Zer-
bitzuak igeriketa monitore
ikastaroa antolatu du 16
urtetik gorakoentzat. Ikas-
taroa Oñatiko Zubikoa
kiroldegian izango da aza-
roaren 10etik abenduaren
23a bitartean. Ikastaroa egi-
teko, gutxienez 25 lagunek
eman beharko dute izena eta
horretarako Oñatiko Zubi-
koa kiroldegira jo edo 943
71 63 75 telefonora deitu
daiteke (Xabier Gerardo).
Izen ematea 40.000 peze-
takoa izango da deba-
goiendarrentzat.

Gipuzkoako klubuen arteko pilota txapelketa

Hasi da Gipuzkoako taldeen arteko pilota txapelketa. Joan den asteburuan Aretxabaletan jokatu ziren hainbat partida. Asteburu honetan, gaur bertan hain zuzen ere, Uarkapen jokatu dira Arrasateko Pilota Elkarteko pilotarien partidak, gaueko 22:00etatik aurrera.

Sei mailatan jokatu dituzte neurketak: lehen eta bigarren mailako kadeteak, lehen eta bigarren mailako gazte mailakoak eta lehen eta bigarren mailako afizionatuak. Arrasateko pilotari bikoteak honako hauek izango dira:

- **Lehen mailako kadeteak**
Andoni Jimenez eta Arriet Arroiabe.
- **Bigarren mailako kadeteak**
Jon Rodriguez eta Iñigo



Ostiralean 22:00etan bi partida jokatu dira Uarkapen.

Jimenez.

- **Lehen mailako gazteak**
Egoitz Uribarren eta Beñat Dominguez.
- **Bigarren mailako beteranoak**
Eneko Osinaga eta Aitzol Lazkano.
- **Lehen mailako beteranoak**
Iker Zugasti eta Lordi Zua-zubiskar.

Aurkariak maila bakoitzean aldatu egingo dira; horrela, Urretxu, Tolosa, Beasain, Zumarraga eta Aretxabaletako bikoteen aurka arituko dira. Baina, ez dira partida guztiak segidan jokatu. Ostiralean, gaueko 10etan, bigarren mailako kadeteek jokatu dute, Uarkapen. Ondoren, bigarren


urteko gazteak, arituko dira Tolosaren aurka.

Aritz Zuazuak eta Aitor Agirrek larunbatean jokatu dute Tolosan. Biak Gipuzkoako txapelkunak dira; beraz, txapela defendatzea tokatzen zaie aurten.

Afizionatuek Aretxabaletan dute neurketa. Gaur jokatu dute Iturrigorri pilotalekuan iluntzeko 20:00etatik aurrera. Errasti anaian aurka arituko dira Iker Zugasti eta Lordi Zuazubiskar. Partida gogorra izango da, dudu barik; izan ere, Errasti anaiek Usurbileko txapelketa irabazi berri dute.

Bestalde, Ibon Errasti Gipuzkoako Opeña jokatzeko dabil eta igandean txapelketa horretako beste partida bat jokatu du, atzelari bezala.

Badator Zaldibarko txapelketa



Azaroaren 10-11 aldera hasi nahiko lukete Zaldibarko Antolakuntzakoek aurtengo Zaldibarko areto futbol txapelketa. Baina, horretarako izena eman behar duzue, zuek, taldeetako jokalariek. Astelehenean, hilaren 27an, eta asteartean, hilaren 28an, Monterronera jo beharko duzue izena emateko. Ordua: 19:00etatik 20:00etara.

Gutxieneko baldintza

batzuk behar dira horretarako:

- Taldea, gutxienez, 12 jokalarik osatuko dute.
- Jokalariek, gutxienez, 16 urte izan behar dituzte.
- Talde bakoitzak 28.000 pezeta ordainduko ditu. Horietatik 8.000 pezeta, fiantzarako izango dira.
- Izena ematerakoan, antolakuntzakoek emandako orria behar bezala bete beharko da. Animatu!

Debagoieneko frontenis eta pala txapelketak hasi dira

Bailarako Kirol Zerbitzuak hasi du txapelketen zirkuitoa: frontenis, pala, squash eta tenis txapelketak jokatzeko hasi dira bailarako hainbat herritan. Bailarako sailkapena egingo da eta gero onenen arteko txapelketa ere jokatu da.

Aretxabaletan, Mondragoeko sei bikote ari dira frontenisean: Iñaki Sanchez-Kepa Garcia, David Caballero-Arantzadi, Mikel del Rio-Jon Loiti, Jose Izquierdo-Candido Urtado, Jose Caballero-Diego Galan eta Jose Hernandez-Alberto Perez. Euren batera, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako bikoteak ere ari dira jokatzeko.

Lehenengo jardunaldian Iñakik eta Kepak 25 eta 18

irabazi zieten Bergarako bikote bati; Caballero-Arantzadi eta Mikel del Rio-Jon Loiti bikoteek elkarren aurka jokatu behar zuten, baina partida bertan behera gelditu zen; gauza bera gertatu zen Jose Caballerok eta Diego Galanek jokatu beharrekoarekin. Jose Izquierdok eta Candido Urtadok 25 eta 5 galdu zuten bergararren aurka eta Jose Hernandez eta Alberto Perezek 25 eta 8 irabazi zuten atxabaltarren aurka.

Musakolan, bestalde, pala txapelketa jokatzeko ari dira zazpi bikote. Arrasatekoek, Juantxo Zabalak eta Beñat Apraizek, asteburu honetan Jaime Acedo eta Asier Muruamendiarazen aurka jokatu dute.


Ion Pousaren margoak, mundura

Ion Pousa Ruiz de Alegria margolari arrasatearraren lanak Kataluniako, Estatu Batuetako eta Holandako azoka eta erakusketetan ikusi ahal izango dira laster.

Bartzelonan egin den Euroart Artista Independenten IV. Azokan hartu du parte Ionek, eta horri esker ahalbidetu dira lehendik zituen eskaintza horiek.

KOLOREAREKIKO PASIOA

Kolorearen erabilera aberats eta ugaria azpimarratu dute adituek Ion Pousaren lanetik. Kolore distiratsu eta deigarriak erabiltzen ditu bere munduaren ikuspegia aditzera emate-



Paisaia da Ionon gai gogokoenetariko bat.

ko. Bere barne sentimenduen luzapen bezala ikusten du margogintza Ionek, eta, bere esa-

netan, hain kolore biziak aukeratuz, bizitzaren ikuspegi alaia eman nahi du.

Buztingintza ikastaroa

Datorren martitzenean jarriko da abian Buztingorri Zeramika Eskolak antolatatu duen buzingintza hastapen ikastaroa. Martitzen eta eguenero emango ditu eskolak Ainhoa Arregik, 19:00etatik 21:00etara. Gazte Bulegoak darama ikastaroaren izen ematea.

SAKONKETA

Santamasetan erakusmahai bat izaten du Eskolak, eta ikasturte amaieran erakusketak egitea nahiko lukete arduradunek. Buztinari gus-tua hartzen badiozue, deko-



razio teknika eta eskultura ikastaroak ere izango ditu-

zue aukeran, urte bukaera bitartean.

Irudipuinak Arrasaten


Liburutegien Nazioarteko Egun da urriaren 24an. Hori ospatzeko, Irudipuinak saioaz gozatzeko aukera izango dute 6, 7 eta 8 urtekoek. Urriaren 24an Santamainako liburutegian, eta 26an Monterronen.

Hitza, irudia eta umorea dira Iñaki Martiarena "Mattin" marrazkilaria eta Ixabel Agirresarobe kontalaria saio honen protagonistak. Ixabelek ipuin bat kon-tatzen duen neurrian, "Mattin"ek ipuinaren inguru-ko marrazkiak bat-batean egiten ditu.

Bi arrasatear Artisaualdian

Artisaualdia'2000 jardunaldiak dabilta ospatzen egunotan Ordizian, eta mondra-goetarrek ditugu 40 artisaue-tariko bi: Jesus Gruzeta eta Karlos Oianguren bitxigileak. Esan digutenez, aukera bikai-na izango da hau euren lana ezagutzera emateko.

Asteburu osoan izango dira jendaurrean artisauek. Azoka izango da Artisaualdi-ko ekintza nagusia, baina ez bakar-ra: hainbat hitzaldi ere emango dira. Gainera, postu apainari sari bat emango dio-te antolatzaileek; arrasatear-ren helburu nagusia hau ez den arren, saiatuko direla esan digute.



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

| |
|--------------------|
| Argidun kartelak |
| Tbilgailuak |
| Stand-ak |
| Itsasgarriak |
| Biniloa |
| Señalizazioak |
| Lonak |
| Erliebedun hizkiak |

Etxebizitzak salgai Antzuolan

90m² erabilgarriak

20.000.000 PTA

Lehen mailako materialekin egina. Leku ezin hobea.

Informazioa eta salmenta: **KOROSTI INMOBILIARIA.**

Tel.: 943 73 05 25

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.
Urriak 28: **Hamlet + Jauko Barik**

Egun bakoitzerako **2** sarrera
zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren
egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Bidali gurera: Arrasate Press, Otxalora 31

asteko filma



American Psycho

EEBB, 2000. Suspensea. **Zuzendaria:** Mary Harron. **Aktoreak:** Christian Bale, Willem Dafoe, Reese Witherspoon. **Kalifikazioa:** 18 urtetik aurrerakoendako.

HARIA

Wall Streeteko yuppie bat dugu Patrick Bateman. Bere buruhaute nagusiak hauek dira: bere burua apaintzea, dirua esku betean irabaztea eta ahalik eta ondasun garesti eta eskusiboetaz inguratzea. Hori, egunez; gauez, bere baitan daraman hiltzaile psikopata askatzen du.

KRITIKA

Nahi izan, eta ezin. Esaldi labur horrek primeran adierazten du zertan geratzen diren filmaren asmo eta ahaleginak. Asmoei dagokienez, bikainak zituen Mary Harronek, Bret Easton Ellis-en hitz lau arrakastatsu eta polemikoa egokitzeari ekin zionean, baina horretan geratu da guztia. Psikopata estereotipiko bat aurkezten zaigu, beldurrik eta suspenserik pizten ez dituen, ustezko asmo gaiztoak berehala agerian uzten dituen.

irakurle eta entzule

Iturria: Jungla disc eta Hire

diskoak

MADONNA

Music (Maverick/Warner Bros.)




Garaian garai-ko boladei eta estiloei egokitzeko trebezia erakutsi badu musikari batek, Madonna da hori; baina, estiloz aldatu

baino, bere doinuak uneko joerekin jantzi izan ditu. 80ko hamarkadan dantza erritmoen aldeko apustua egin bazuen (*Into The Groove* abestiarekin, adibidez), gauza bera egiten du, neurri handi batean, disko berri honekin. 1998ko *Ray of Light*-en antzeko samarra da soinu elektronikokoekiko eta sintetizatzaileekiko gustuan; baina, tresna berriak erabiliaz, bi mota-tako abestiak egiten ditu: alde batetik, dantzarako gonbiteak (*Music*, *Amazing*, *Impressive Instant*); bestalde, patxadaz entzuteko abesti lasaiak, alaiak eta malenkoniatsuak (*Gone*, *Paradise*, *I Deserve It*), aitorten antzean kontatutako istorioekin. Pop futurista egin du oraingoan Madonnak, bere izateari uko egin gabe.

liburuak

MÁS PLATÓN Y MENOS PROZAC

Lou Marinoff (Ediciones Z, 397 orri, 2.200 pezeta)



Prozac zaleak txanpinoiak balira bezala loratzen ari direla eta, aldi baterako konponbide erosoan aurkako eta zuhurtasunaren eta norberak berea aurrera eramateko dugun ahalmenaren aldeko hainbat

eta hainbat ahots piztu dira. Horren adibide dugu Lou Marinoff estatubatuarra. Bizitzen jakitea dela esan du filosofiak, eta filosofiarekin kutsu praktikoko hori gauzatzen laguntzeko liburu hau eskaintzen digu. Eguneroko arazoak eta larritasunak azaltzen dira, eta horiei nola aurre egin eta probetxua ateratzen jakiteko aholkuak ematen dizkigu. Hori bai, sasijakintsu askoren maisukeriaren arrastorik ere ez datorkigu hemen: gure kabuz pentsatzeko ezten ederra dugu esku artean, edozein arazo menpean hartu dezakegula erakusten digun filosofia liburu erakurterraza.

asteburuan zer

kontzertuak

JONATHAN RICHMAN ETA MICHAEL MONROE

Badute ezaugarri komunik asteburu honetan Bergarako Jam bisitatuko duten bi musikariek, Jonathan Richmanek eta Michael Monroek. Nor bere taldeko sortzaile eta burua izan zen; bakarkako ibilbideari



ekin zioten urte batzuk pasata, etabiek dute estilo personal nahastezina. 70. hamarkada hasieran sortu zuten Jonathan

Richmanek *Modern Lovers* taldea, 50eko popa eta *Velvet Underground*en sonak izan zituen inspirazio iturritzat hartuz. *Roaddrummer* eta *Egyptian Reggae* bezalako abesti potenteak eman ondoren, indiferentzia ez, beste edozer piztu dezakeen naif estiloari eutsi zion. Zapatuan, 22:00etan, izango da hori egiaztatzeko aukera. Eta ordu berean, baina domekan, Michael Monroe izango dugu, *Hanoi Rocks* taldearen arima. *Rolling Stones*, *Aerosmith*, *Little Richard*, *New York Dolls*, *Iggy Pop* eta *David Bowie* koktelan sartu eta hortik atera zuten *Bangkok Rocks*, *Saigon Shakes* diskoa. Bakarlarik bezala ere oparoa izan da Monroe, eta sasioan dago, *Life Gets You Dirty* azken diskoan erakusten duen bezala.

MAITENA ZUBIA ETA ANA OIARTZUN (SEXOLOGOAK)

“Sexologia eta feminismoa izate barik geratu dira”

“Emakumeak: Izanak eta Izateak” jardunaldiak izango dira Eskoriatzako Humanitate Fakultatean, azaroaren 4an, Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuak antolatuta. Ana Oiartzun eta Maitena Zubia dira Sexologia Zerbitzuko arduradunak, eta eurek eman digute azalpen gehiago.

—Nola bururatu zitzaizuen jardunaldi hauek egitea?

—Orain bi urte bete zen Simone de Beauvoirren *Bigarren Sexua* liburuaren 50. urtemuga. *Simone de Beauvoir, honetaz eta hartaz* liburua egin du Pilar Sampedro psikologo, sexologo eta feministak, eta azaroaren 4an aurkeztuko du; hori aitzakiatzat hartuz, feminismoak eta sexologiak emakumearen inguruan eman dutena plazaratzeko mahai-inguruak, komunikazioak eta antzerkia antolatu ditugu. Debagoieneko Udalen eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate Fakultatearen laguntza izan dugu.

—Eta edukiei dagokienez?

—Izana edo entitatea, eta izatea edo identitatea zer diren landuko dute feminismoak eta sexologiak, bakoitzak bere aldetik. Giza sexu izatea eta izana, sexualitate lesbianoa, sexuaz konplexurik gabe hitz egitea... izango dira mahai-inguruetakoz batzuk; hauek goizez izango dira. Arratsalde, berriz, liburuaren aurkezpena izango da ekitaldi nagusia. Madrilgo, Asturiasko, Donostiako, Bilboko eta Durangoko adituak etorriko dira. Jardunaldiak bukatzeko, *Oihulari Clown* antzerki taldearen “Clown-clusiones” saioa izango dugu.



—Zergatik uztartu dituzue sexologia eta feminismoa?

—Ezagarri komunak dituzte bi zientziek, eta jardunaldien izenburua diziplina hauei ere aplika dakieke. Diziplina horien ikuspuntuaz gain, diziplinen izana eta izatea ere landuko da. Emakumearen inguruko ekoizpen eta ekarpen handiak eman dituzte biek: batetik, emaitza zientifikoak, eta, bestetik, militantzia. Baina, beste zientzia batzuentzako egin izan dute lan bi diziplinek; hori, neurri batean, ondo dago, baina, beste aldetik, feminismoa eta sexologia eurak izate barik geratu dira, euren historia alboratu egin da, eta zeharka irakatsi dira. Izate propioa izateko behar adina eman dutela aldarrikatu nahi dugu

jardunaldi hauekin. Estatuan aitzindariak gara, gainera; inoiz ez da sexologia eta feminismoa elkartzen dituzten jardunaldirik egin.

—Ipin dezakezue alboratze horren adibideren bat?

—Sexologiaren emaitzak biologiaren, medikuntzaren, psikologiaren eta beste hainbat zientzien barne ikasten dira sarritan, eta esparru horiei mesede handia egin die sexologiak. Eta har dezagun Jean-Paul Sartre eta Simone de Beauvoirren kasua: Sartreren lanak badu bere izatea filosofiaren barruan, baina Beauvoirrenak ez. Eta ez da ahaztu behar gizartea aldatu dutela feministek idatzitako liburu askok.

“Sexologiaren emaitzak biologiaren, medikuntzaren, psikologiaren eta beste hainbat zientzien barne ikasten dira sarritan, eta esparru horiei mesede handia egin die sexologiak”

Goitb

Goiena Telebista

OSTIRALA, 20

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Hamaika Magazin.**
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.** Asteko albiste nagusien errepasoa.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**
- 22:15 **Soinuz Blai.** Haika Aizpuruak aurkeztuta.

LARUNBATA, 21

- 13:30 Asteko saioen errepika:
Gatza eta Berakatza,
Xeleberri, Aurrez Aurre,
Hamaika Magazin,
Soinuz Blai eta Astebete.

IGANDEA, 22

- 13:30 Asteko saioen errepika:
Gatza eta Berakatza,
Xeleberri, Aurrez Aurre,
Hamaika Magazin,
Soinuz Blai eta Astebete.

ASTELEHENA, 23

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Astebete.**
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Goienasport.**



Gorka Etxabe.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**

ASTEARTEA, 24

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Goienasport** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Xeleberri.**
Unai Iparragirrek eta Iratxe Eguenek aurkeztuko dute asteko albisteak modu bitxian.



Iratxe eta Unai, "xeleberriak".

- 22:15 **Gatza eta Berakatza.**

ASTEAZKENA, 25

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Xeleberri** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Alkatearekin berbetan.**
Gatzaga herriaren txanda



Joserra Agirreureta.

izango da oraingo honetan. Horretarako, bertako alkatea den Joserra Agirreureta gonbidatu dugu. Ohitura

Gatza eta Berakatza



Aste honetan Bergarako *Azpeitxi* jatetxeko sukaldaria den Iñaxio Beldarrain gonbidatu dugu. Aranerrekak kalean dago *Azpeitxi* jatetxea eta beraien berezitasunak, besteak beste, okela eta arraina parrillan dira.

Bestelako platerak goxo-goxo prestatzen ere bada kiela erakutsiko digu Iñaxiok.

Datorren astean

| NOIZ | PLATERA |
|---------------|------------------------------|
| Astelehena 23 | Arrain zopa. |
| Asteartea 24 | Porru tututxoak. |
| Asteazkena 25 | Txipiroid betetako piperrak. |
| Osteguna 26 | Legatza saltsan. |
| Ostirala 27 | Legatz betea labean. |

de bezala ikus-entzuleek parte hartzeko aukera izango dute eta alkateari galdera eginez zuzenean. Horretarako 943 71 23 93 telefonora deitu besterik ez duzue.

21:30 **Ekilan.** Alberto Gorritibereak aurkeztu eta gidatutako saioa izango dugu aurten ere ikusgai GOITBn.

- 22:15 **Gatza eta Berakatza.**

OSTEGUNA 26

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Aurrez Aurre** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**



Alberto Gorritiberea.

- 22:00 **Soinuz Blai.** Miren Gonzalezek aurkeztuta
- 22:15 **Gatza eta Berakatza.**

Astea sakonean


Astebete ostirala, 21:30



Mikel Lezamiz.



Marijo Deogracias.



Eneko Azkarate.

Indarberriturik dator Astebete saioa denboraldi berri honetan. Hasteko, aurkezle berria izango du: Marijo Deogracias, *Arrasate Presseko* zuzendaria. Alboan, gainera, bi iritzi emaile izango ditu: Eneko Azkarate, *Goienkariako* zuzendaria eta Mikel Lezamiz soziologoa.

Astea joan astea etorri, ostiralero Berriak saioaren ostean, gure hiru lagunek astearen errepaso egingo dute, sakonean.

Saio bakoitzean gai bat izango da nagusi, asteak eman duen albisterik garrantzikoena. Horrezaz gain, laupabost albiste

gainbegiratu dira.

Bailaran argitaratzen diren herri aldizkariak ere izango dute txoko bat. Astero-astero, Eneko Azkaratek aldizkariaren aurkezpena egingo du. Gogoan izan Euskal Herriaren haurde dela herri aldizkari gehien dituen bailara: *Arrasate Press*, *Aretxagazeta*, *Berrigara*, *Kontzejupetik*, *Goibekokale*, *Zer Barri* kaleratzen dira, *Kontuola* gehigarriarekin batera. Ikusleek, gainera, aukera izango dute iradokizunak, galderak edo kexuak grabatzeko, propio jarriko den erantzule automatiko batean.

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

ASTEARTEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

ASTEAZKENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

OSTEGUNEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Binilo ordua.

OSTIRALEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

LARUNBATEAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro eta zu.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Pisia salgai Begoñan. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, terraza handia, berogailua. Tel.: 646 30 53 49 / 636 79 47 61.

- Altzaridun etxebizitza salgai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 28 18.

- Etxebizitza salgai Erguin auzoan. Tel.: 943 79 99 08.

- Etxebizitza salgai San Andresen. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna eta sotoa. Tel.: 943 79 99 26.

2. Erosi

- Etxebizitza zahar bat erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 649 86 73 05.

3. Errentan emateko

- Pisia alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 32 73 / 656 75 83 59.

- Gela bat alokagai daukat. Tel.: 943 79 87 59.

- Bergarako erdialdean etxea alokagai. Tel.: 943 76 15 40.a

4. Errentan hartzeko

- Ikasle bat Arrasaten pisu bila. Tel.: 948 46 73 66 eta 945 46 71 24.

- Pisia behar dugu Aramaio, Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan. Tel.: 629 92 48 82.

- Bikote batek etxebizitza alokatuko luke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 606 75 59 13 edo 653 72 28 94.

- Etxebizitza bila nabil Arrasaten, konpartitzeko. Presakoa. Tel.: 945 27 80 59.

5. Etxeak osatzeko

- Neska batek gela bat alokatu nahi du. Tel.: 94 440 58 78 edo 696 88 26 65.

- Neska bat behar da Donostian, Amaran, ikasleen pisu bat osatzeko. Tel.: 943 47 32 67.

- Lagun bat behar dut Arrasaten pisua osatzeko. Tel.: 943 77 13 20 (gauetz).

- Pertsona bat behar da etxebizitza konpartitzeko San Juan auzoan, prezazkoa da. 21.700 + gastuak. Tel.: 943 79 23 96.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

- Etxebizitza alokatuko nuke beste ikasle batzuekin. Tel.: 943 80 64 05.

GARAJEAK

7. Saldu

- Arimazubi plazan garaje itxia salduz. Tel.: 943 79 18 13.

9. Errentan emateko

- Garajea alokagai edo salgai Kontzeziñon, 18,9 m²koa. Tel.: 943 79 96 17. 13:00 - 15:00 eta 21:00 - 22:00.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

- Lokala salgai Zarugalde kaleko 6. zenbakian. 60m² eta 22m²ko patioa. Tel.: 606 76 50 22.

14. Errentan emateko

- Lokal bat alokagai Anboto kale-

an, 75 m², ur eta argiarekin. Tel.: 943 79 98 07. Gauetz.

- Lokala alokagai Erdiko kalean. 65 m², prezio interesgarria. Tel.: 943 77 00 68. Ordu-tegi komertziala.

LANA

17. Eskaintza

- Taberna batean lan egingo nuke, Arrasate edo inguruan; esperientziaduna. Tel.: 657 70 49 99 edo 657 70 50 00.

- Neska prest umeak zaintzeko arratsalde. Tel.: 943 79 20 55.

- Emakume esperientziaduna etxea garbitzeko edo pertsona nagusi zein umeak zaintzeko prest. Tel.: 943 77 02 46.

- Mutil atzerritarra edozein lanetan ibiltzeko prest. Tel.: 686 66 22 71.

- Taberna batean egingo nuke lan asteburuetan. Tel.: 77 02 17 edo 617 72 47 83.

- 35 urteko emakumea prest ume- ren bat arratsalde zaintzeko. Tel.: 667 85 15 10.

18. Eskaerak

- Neska bat behar da sukaldarako eta beste bat barrarako. Tel.: 943 79 00 34.

- Esperientziadun ile apaintzaile profesionala behar da. Ikaslerik ez. Tel.: 943 77 13 03 (21:00etatik aurrera).

- Arrasateko arrandegi batean emakume euskalduna behar da goizez lan egiteko. Gida baimena beharrezkoa da. Tel.: 94 682 03 73 edo 943 71 48 61.

- Taberna sukaldari lanak egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

- Emakume bat behar da 5 orduz etxea garbitzeko. Tel.: 653 71 79 00, gauetz deitu.

- Enpresa batek furgonetadun pertsona bat behar du garraio lanak egiteko. Tel.: 943 77 00 34 edo 943 77 13 52.

- Ile apaintzailea behar da. Tel.: 696 44 50 37.

- Emakumea behar dut etxeko lanak egiteko, egunero hiru bat orduz. Tel.: 943 79 43 85. Rosa, 18.30etik aurrera.

- Neska bat behar da Garagartzan bi neskatila zaintzeko, 16:30etik 19:30era. Euskaraz jakin behar du eta autoa eduki behar du. Tel.: 943 77 15 51 / 52.

- Dendaria behar da janari denda baterako. Esperientziaduna ahal bada. Tel.: 943 77 00 91.

- Tabernaria behar da jatetxe-taberna batean lan egiteko. Interesatuok deitu 943 79 20 50 telefonora.

- Sukaldari bat, garbitzaile bat eta zerbizariak, barrarako eta jangalarako behar ditu Bergarako jatetxe batek, gizon zein emakumeak. Tel.: 666 06 22 60.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Eskola partikularrak ematen dira talde murriztuetan: idazketa-irakurketa, euskara errefortzua eta etxerako lanetan laguntza. LH 1.-6. maila bitartean. Tel.: 619 35 48 44.

- Eskola partikularrak emango nituzke, 1. hezkuntzan edo DBHko lehenengo mailan. Tel.: 943 79 97 87. 21:00etatik aurrera.

- Heziketa Berezian lizentziadunak LH 1etik 6. mailara bitartean, laguntza eskola ematen du. Tel.: 943 79 58 83. Arratsalde deitu.

21. Eskaerak

• Batxilergoko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako eskolak emateko irakaslea behar da. Tel.: 943 79 28 79. Deitu 19:00etatik 21:00etara. Mertxe.

• Pertsona bat behar da, DBHko lehenengo mailan dabilen neska bati eskola partikularrak emateko. Tel.: 943 77 15 58.

• DBHko lehen mailako eskola partikularrak emango dituen pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 83 15. 21:00etatik aurrera.

• Gestio informatikan ingeniari-tza teknikoko algoritmikorako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 76 61 02.

MOTORRA

23. Saldu

• Opel Kadett 1.4 autoa salgai. SS -AL. Tel.: 667 08 84 84 (Iker).

• Volkswagen Polo diesela 1.9 SS-AX salgai. Tel.: 609 54 16 13.

• Cota 348 motorra salgai. Egoera onean. Prezioa: 150.000 pta. Tel.: 677 42 58 30.

• Seat Panda salgai. Egoera onean. Tel.: 677 42 58 30.

• Hyundai Atos autoa salgai. 2 urte. 12.000 km. Tel.: 639 87 58 37.

• Opel Corsa Don Algodon autoa salgai. Egoera ezin hobean eta oso merke. ITVa pasatu berri eta Km asko egiteko prest. Tel.: 943 79 97 60.

DENETARIK

26. Saldu

• Akordeoia salgai, 72 baxukoa, gorri kolorekoa. Blessing markakoa. Tel.: 943 79 36 73.

• "Vaporeto" italiarra salgai, plan-txa eta guzti. Oso egoera onean. Tel.: 943 79 36 73.

• 4 llanta salgai, neumatikoekin batera. Golf 2, 5 palos. Neurriak: 185, 60, R14. Tel.: 646 76 76 52. Xabier.

• 5 gurpil saltzen dira aluminiozko llantekin, Opel Corsa edo Opel Kadettentzat. 20.000 pta. Tel.: 943 79 93 19.

• Ordenadorea salgai, 1997. urtekoa. Ezaugarriak: Pentium 133, inprimagailua eta bozgorailuak. Egoera onean. 95.000 pta. Tel.: 676

73 40 77.

• Erabili barik dauden eskiatzeko botak salgai; zenbakia: 40. Tel.: 943 77 17 48. Gaez deitu.

• Piragua salgai, arraun eta ontzi estalkia, merkea, ia berria. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

• GAC markako 2 bizikleta salgai, berriak, behin erabiliak, gizon eta emakumearendako. 40.000 pezeta (biak). Giltzarrapoa doan. Tel.: 943 79 65 80. 19:00 - 21:00.

28. Trukatu

• Egoera onean dagoen Seat Panda motorbatekin trukatu nahiko nuke. Tel.: 677 42 58 30.

29. Eman

• Hil eta erdiko txakurkumeak oparitzen dira. Tel.: 676 37 96 36.

30. Hartu

• Telebista zahar bat hartu edo eros-teko prest. Tel.: 943 77 91 25. Jon.

31. Galdu

• Irailaren 20an, eguaztena, Erguingo Udalpe plazako eskaileretan betaurrekoak galdu nituen. Brico markakoak, berdeak. Tel.: 943 77 01 42.

• Urriaren 8an, igandean, Etxague-neko bolatoki ondoan argazki kamera eta prismatiko batzuk galdu zitzaizkigun. Aurkitu dituenak mesedez 943 79 95 50 edota 943 79 19 03 telefonora dei dezala. Eskertuko da.

HARREMANAK

36. Harremanak

• Arrasaten bizi naiz eta ingelesez (amerikeraz) ondo dakidan mutila naiz. Frantsesez ondo dakien neska baten bila nabil bere ingeleza eta nire frantsesa hobetzeko. Deitu 619 072 900 telefonora.

37. Bestelakoak

• Berreskuratu zure osasuna energia erabiliz. Gaixotasun mota guztiak, norberarentzako tratamenduekin. Deitu inolako konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 45 74.

Aramaioko I. argazki rally-a

Urriak 22, igandea



Argazkigintza gustoko baduzue, Aramaioko Udalak igande honetarako argazki rally bat antolatu du. Bere bailarekin lotura duten karreteak edo diapositibak aurkeztuta, baliteke saritua suertatzea. Animo eta zorte on!!

Argibide gehiago,
Aramaioko Udalean jaso daitezke.

- IZENEMATEA: aurrez, Vital Kutxako 0010195172 zenbakian edo igandean bertan, goizeko 8ak eta 9ak bitartean herriko plazan (Sastiñan).
- PREZIOA: aurrez 1.000 pezeta eta egunean 1.300 pezeta.
- GAIK: 3 finko, 1 isilpeko eta 2 aukeran, guztiak ere Aramaioko bailarekin lotura dutenak.
- KARRETEEN BILKETA: rally-a amaitzean 14:00ak eta 15:00ak bitartean.
- DIAPOSITIBEN BILKETA: urriaren 25a eta 26a bitartean, Arrasateko edo Gasteizko Enrique Martin-en.
- PROIEKZIOA ETA SARI BANAKETA: azaroaren 10an, udaletxeko pleno aretoan, 20:00an.

Sariak

| | |
|-------------|---------------|
| 1. Saria | 50.000 pezeta |
| 2. Saria | 35.000 pezeta |
| 3. Saria | 25.000 pezeta |
| 3. Akzesita | 10.000 pezeta |



Kooperatiba eta berarekin lotutako egiturak Mondragoen gero eta tinkoago daudela argi ikusten da azken urteotan. Eroski nola handitzen joan den ikustea besterik ez dago. Baina, kon- tuak ateraz gero, lehenengo Eroski sortu zenetik ez dira

hainbeste urte pasatu. Aste honetako argazkian jaso dugu momentu hori bera. Izan ere, 1960. urteko ekainaren 23an inauguratu zen lehenengo kooperatiba. Ez zen Eroski deitzen, San Jose Kooperatiba baizik. Iturriotz kalean zegoen kokatua, orain Aurrezki Kutxa dagoen toki berean. Hain zuzen ere, egun berean eta San Jose

Kooperatibaren goiko pisuan, Aurrezki Kutxaren lehenengo bulegoa ere inauguratu zen.

Argazkian agertzen diren pertsonak hauek dira, ezkerretik hasita: ate ondoan dagoena, Ignacio Sainz da, Azkoaga hurrengo, ezezaguna eta bizkarrez dagoena Julio Ota- dui da, orduko Arrasateko Alkatea. Ondorengo Gober-

nadore Zibila da, Jose Maria Gomez del Moral. Abadea, noski, On Jose Maria Ariz- mendiarrieta da; berriaz, haren ondoan dagoena Pablo Zume- laga da eta azkena, kooperati- bako nagusia, Javier Salabe- rria.

Argazkia eta berriemailea:
Arrasateko Udala



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Ez dago inolako sekreturik gure Nissan 3+2 Excellent, 5 urteko Bermean. Hain gogotik egiten ditugu gure autoak, kilometro mugarik gabe* bost urtez bermatzen baititugu, jakin badakigulako, askoz gehiago iraungo dutela arazorik gabe. Baina, noski, azken orduko ezustekoren bat ere gerta daiteke auto jakin batean eta orduan ikusten da zein ona den gure bezero izatea modalitate honetan. Gutxieneko kostu batekin edozer gauza gertatuta ere, babestuta egongo zara. Horregatik Nissan auto bat baduzu, zure hiru urteko berme estandarra bost urtera luzatzea eskaintzen dizugu. Abantaila handienak denborarik luzeenean goza ditzazun. Nahiz eta gero, ehun urtean, ez izan inongo arazorik.

Badaziku Zein Den Gure Autoen Bermea
Bost Urtera Luzatzeko Arrazoi Nagusia?

3+2=5+X

Badakigulako askoz gehiago iraungo dutela.

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 MONDRAGON-ARRASATE

*Kamioiak izan ezik. Trade y Cabstar E sartzen dira 300.000 km.ko mugarekin.



GIDATU ETA GOZATU



OMU
ZERAMIKAK

Zeramika,
arte unibertsala